

# AUZOETAKO JAIK ERE EGOERA BERRIRA MOLDATUKO DIRA, ORAIN ARTE EZAGUTU GABEKO FORMATU BERRIAK BERRASMATUZ

Pertsonak eta hauen osasuna dira auzoetako jai batzordearen lehentasuna. Hauek bermatu ahal izan arte, auzo bakoitzaren esku geratuko den formatu berri batean ospatuko dira jaiak.

Gasteiz. 2020.05.04. Auzoetako jai batzordeetatik (behean sinatzaileak), koronabirusak eragindako krisi sozio-sanitarioaren aurrean, arduraz jokatzeko momentua dela sinetsiak gaude. Horregatik, aurtengo jaiak ezberdinak izan beharko diren ondorioa heldu gara, behintzat pertsonen osasuna bermatuko duten baldintzak eman arte. Bitartean, jaiak aurrera egingo dute orain arte ezagutu gabeko formatu berri ezberdinetan.

Ezer baino lehen, gure babesaz azaldu nahi diegu egoera lazgarri hau doluz bizi edo lehenengo pertsonan sufritzen ari diren haiei, zein haien ingurukoei. Era berean, gogora ekarri nahi ditugu egunero haien bizitza arriskuan jartzen duten langileak eta egoerak sortutako beharrei aurre egiteko antolatuta diren bizilagunak.

Egun bizitzen ari garen ez-ohiko egoerak herritarrontzat garrantzitsuak diren aspektu ezberdinetan eragin duela eta eragingo duela argi dago, herri mugimendua alderdi horietako bat delarik. Gasteizko herri-mugimendua anitza eta aberatsa da, eta hori da, hain zuzen, hiri honi bere nortasuna ematen dion ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Jaietan burutzen diren ekintzek eta aldarrikapenek indarra ematen diote bai auzo bizitzari eta baita auzogintzari ere. Erabaki hau hartzerakoan, kontziente gara zeri egiten diozun uko, izan ere harreman asko ezingo dira gauzatu eta egindako lanaren parte bat bertan behera geratuko da. Hala ere, lan asko daukagu aurretik eta lan horretan, gainera, norbanako eta kolektiboen inplikazioa inoiz baino garrantzitsuagoa izango da.



Erabaki honek, auzoetako ehun ekonomikoan zein jaietan parte-hartzen duten herri mugimenduko adierazpen ezberdinetan izango duen eragina ukaezina da. Honek ezinbestean, eta gaur arte egin dugun bezala, herritarren inplikazioa eskatuko du, baita udalarena ere. Zentzu honetan, auzoko komertzio txikia bultzatzen jarraituko dugu; era berean, auzoko eragileekin batera sor daitezkeen dinamika herritarretan gure aletxoak jartzeko konpromezua hartzen dugu. Horrez gain, udaletxetik baimen, dirulaguntza edo edozein tramite burokratikotan malgutasuna espero dugu, planteatu daitezkeen dinamika desberdinei era eraginkorrean aurre egin ahal izateko.

Finean, bizitzak erdigunean jartzeko momentua dela inoiz baino ageriagoan geratu dela uste dugu. Eta horregatik, pertsonen osasuna babesteko, pandemiak iraun bitartean eta baldintza egokiak eman arte, jaiak modu presentzialean, edo gutxienez ohiko formatuan, ez antolatzeko erabakia hartu dugu. Honek ez du esan nahi jaiak burutuko ez direnik, eta hau argi adierazi nahi dugu.


Sinatzaile garen jai batzordeon artean egoera desberdinak topa ditzakegu, bai datei zein antolakuntza egoerari dagokionean. Hala ere, guztiok gaude buru belarri jaiak modu batean ez bada, bestean burutu daitezten. Beraz, Gasteizko bizilagunei zabaltzen joango diren deialdietara batzera eta haietaz disfrutatzerara dei egiten diegu.

Era berean, hauen parte izan daitezten ere eskua luzatzen diegu, denon artean baino ez diogulako aurre egingo egungo egoerari. Sorkuntza eta irudimen fase berri bati ekingo diogu eta horretarako guztion ekarpena ezinbestekoa da, guztion artean koloreztatu eta alaituko baititugu auzoak. Buruari ekin eta bakoitzak bere alea jartzeko deia luzatu nahi dugu, musikariak, antzezleriak, sukaldariak, txosneroak... guztiok izango gara beharrezkoak egoera honetatik ateratzeko.

## **GORA JAI HERRIKOIAK!**

### **Auzo sinatzaileak:**

**Txagorritxuko Jaiak, Adurtzako Jai Batzordea, Aranako Jai Batzordea, Judimendiko Jai Batzordea, Bost Urki Auzo Elkarteak, Zaharraz harro, Salburuako Jai Batzordea, Zabalganako Txosna Batzordea, Zaramagako Jai Batzordea, San Kristobalko Jai batzordea**



# **LAS FIESTAS DE LOS BARRIOS TAMBIÉN SE AMOLDARÁN A LA NUEVA SITUACIÓN, REINVENTANDO FORMATOS QUE NO CONOCIAMOS HASTA AHORA**

La prioridad para las comisiones de fiestas de los barrios son las personas y su salud. Hasta que éstas puedan garantizarse, las fiestas se celebrarán en el nuevo formato que cada barrio decida.

Vitoria, 04.05.2020. Ante la situación socio- sanitaria generada por el coronavirus, las comisiones de fiestas de los barrios (abajo las firmantes) creemos que es momento de actuar con responsabilidad. Por ello, hemos llegado a la conclusión de que las fiestas de este año serán diferentes, por lo menos, hasta tener medidas para poder garantizar la salud de las personas. Mientras, las fiestas seguirán adelante en formatos que hasta ahora no conocíamos.

Antes que nada, querriamos hacer llegar nuestro apoyo a las personas que estén viviendo el duelo generado por esta situación o personas que estén sufriendolo en primera persona y sus allegados. Al mismo tiempo, querríamos recordar a lxs trabajadorxs que a diario ponen en riesgo su vida y a lxs vecinxs que se han organizado para hacer frente a las necesidades que han surgido en esta situación.

Está claro que la situación tan poco común que estamos viviendo actualmente ha influido y va ha influir en diferentes aspectos importantes de nuestras vidas, siendo el movimiento popular uno de ellos. El movimiento popular de Gasteiz es rico y plural, que a su vez, es una de las características más importantes de la identidad de esta ciudad. Las actividades y reivindicaciones que se realizan en las fiestas dan fuerza a la vida de barrio y a seguir creando ésta. Al tomar esta decisión, somos conscientes de qué estamos renunciando a ciertas relaciones que no vamos a poder llevar a cabo y parte del trabajo realizado quedará suspendido. Pero tenemos mucho que hacer por delante, y ahora más que nunca, es muy importante la implicación tanto individual como colectiva.



La repercusión que esta decisión traerá consigo para la red económica del barrio y las diferentes expresiones de los colectivos del movimiento popular que toman parte en las fiestas es innegable. Esto necesariamente, y como hemos hecho hasta ahora, traerá consigo la implicación popular, y también la del Ayuntamiento. En este sentido, seguiremos impulsando el pequeño comercio local; del mismo modo, tenemos el compromiso de poner nuestro granito de arena participando junto con diferentes colectivos de los barrios en dinámicas populares que puedan crearse con este fin. Para poder hacer frente de manera efectiva a las diferentes dinámicas que puedan plantearse, esperamos que desde el Ayuntamiento sean flexibles con los permisos, subvenciones o cualquier otro trámite burocrático.

Al final, creemos que hoy, más que nunca, ha quedado en evidencia que es momento de poner nuestras vidas en el centro. Y por ello, para proteger la salud de las personas, mientras dure la pandemia y se den las condiciones idóneas, hemos decidido no organizar las fiestas de manera presencial, o por lo menos, no en el formato habitual. Queremos subrayar que esto, no significa que no vayamos a realizar las fiestas.

Las comisiones de fiestas aquí firmantes podemos encontrarnos ante diferentes situaciones, bien por las fechas, bien por las condiciones de la propia organización de éstas. Aun así, todxs estamxs pico y pala, para organizar las fiestas de un modo u otro. Por ello, hacemos un llamamiento a todxs lxs vecinxs de Gasteiz a unirse a los diferentes llamamientos que se difundirán y a disfrutar de ellos.

De la misma manera, tendemos nuestra mano para que sean parte de las fiestas, con el fin de hacer frente juntxs a esta situación. Entramos, por ello, en una nueva fase de creación e imaginación, y para ello, es necesaria la aportación de todxs, dado que así colorearemos y animaremos los barrios. Músicxs, actores/actices, cocinerxs, txosnerxs... Hacemos un llamamiento a que todxs exprimamos nuestras ideas y aportemos nuestro granito de arena, dado que todxs somos necesarixs para salir de esta situación.

## **GORA JAI HERRIKOIAK!**

### **Auzo sinatzaileak:**

**Txagorritxuko Jaiak, Adurtzako Jai Batzordea, Aranako Jai Batzordea, Judimendiko Jai Batzordea, Bost Urki Auzo Elkarteak, Zaharraz harro, Salburuako Jai Batzordea, Zabalganako Txosna Batzordea, Zaramagako Jai Batzordea, San Kristobalko Jai batzordea**